

David Mariñelarena

SEGALARIA

«Apustu gehiagorekin, segarako zaletasuna piztuko litzateke»

Hirugarren urtez, Euskadiko Segalarien Txapelketan parte hartuko duen nafar bakarra da David Mariñelarena. Joan den asteburuan egin zen txapelketako lehendabiziko kanporaketa. Finalerdiak Lantz herrian jokatu dira, uztailaren 30ean.



● OSKAR MONTERO

SEGA ZORROZTEN HARRAPATU du Nafarkariak David Mariñelarena segalaria, Lantzeko bere etxean. Abereen lanak akitu ondoren, ohiko lan tresna hartzen du, bere burua txapelketarako prestatzeko.

■ Nola ezagutu zenuen kirol hau, Nafarroan hain zaletasun gutxi izanda?

Ni abeltzaina naiz, eta sega erabiltzen dut nire lanetarako, baina egun batean telebistan erakustaldi bat ikusi nuen eta gustatu zitzaidan. Oso burugorria naizenez, segalari baten telefonoa lortu nuen azkenean, eta deitu nuen Lantzeko festetara etortzeko. Erakustaldia egin ostean solasean aritu ginen luzez, eta animatu ninduten Euskadiko txapelketan parte hartzera, behar nituen laguntza haiek emanen zidatez, eta horixe egin nuen.

■ Baina txapelketan parte hartzeko taldetxo bat ere behar duzu belarra biltzeko, pisatzeko eta abar.

Bai, nire taldekoak denak Lantzekoak dira, zorroztailea izan ezik. Taldeko hiruk zarez biltzen dute nik ebakitako belarra, beste hiruk eskuz hartzen dute sareetan paratzeko eta beste bik epailearena egin behar dute belarra pi-

satzen, bat gurekin eta beste beste talde batean. Taldea aise bildu nuen, baina ongi antolatzea ez da hain erraza, joan den urtean behin bakarrik entrenatu ginen eta gero galduta ibili ziren. Ea aurten maizago biltzen garen.

■ Zein da ikasi behar den teknika lana ahalik eta hobekien egiteko?

Teknika ahalik eta baxuen ebakitzea da, pisua behean dagoela erraten baitute, baina, horretaz gain, gorputzaren jarrera egokia ere izan behar da, eta, kirol guztietan bezala, arnasketa kontrolatzea. Kolpe onak eta seguruak eman behar dira, gainera.

■ Zuri zer da zailen egiten zaizuna?

Gauza horiek guztiak batera kontrolatzea. Gauza batean kontzentratzen baldin ba-

naiz, besteak ahazten zaizkit edo okerrago egiten ditut. Denan den, aurten jarrera landu dut gehiago, eta espero dut hori lehiaketan nabaritzea. Ongi aritzeko ez da gimnasio-ra joan behar, modu bakarra asko entrenatzea da.

■ Zure herriko lagunek leku guztietara jarraitzen zaituzte, pankarta eta guzti. Horrek lagunduko dizu, ezta?

Bai, hori oso polita da niretzat. Egundorretan laguntza handia ematen dute, eta horrek bakarrik betetzen nau. Haiek ere ilusionatuta daude.

■ Joan den udan, abuztuan, Eslovenian izan zinen Segalarien Nazioarteko Txapelketan parte hartzen. Zer-nolako esperientzia izan zen hura?

Izugarrria izan zen, Euskal

Herriatik bost neska eta hamar mutil joan ginen, eta aukera ikusita ez nuen bi aldiz pentsatu. Austria, Eslovenia, Bavaria, Suitza eta Hego Tirolo taldeak izan ziren. Gu laugarren postuan gelditu ginen, eta emakumezkoetan Izaskun Larrarte gipuzkoarra izan zen onena. Aurten ere joan behar dugu abuztu aldean.

■ Han ezberdin puntuatzen dute. Zer hartzen dute kontuan?

Abiadura eta garbi-garbi uztea baloratzen dute, arinago egiten da. Hemen, berriz, maratoi antzeko zerbait da, motelago egiten da, ez du hainbesteko emoziorik.

■ Erran behar da, halaber, han askoz zaletasun handiagoa dagoela. Zergatik dela uste duzu?

Hemen serioago hartzen da kirol hau, eta hemen egiten dugun moduan gorreragoa da. Han beste modu batez ikusten dute, folklore edo kulturaren barnean sartzen dute, eta festetan egiten dute.

■ Gipuzkoa aldean ere Nafarroan baino zaletasun handiagoa dago. Zer dela eta?

soslaia

24 urteko Lantzeko gazte hau arrunt kirolzalea da; segan aritzeaz gain, lasterketetan ere hartzen du parte. Egundorretan bere kabuz entrenatzen da, eta asteburuetan, Julian Mitxelenarekin, Euskadiko txapelketan emaitza onak erdiesteko.

David Mariñelarena Arribeko kanporaketan ariko da uztailaren 16an. Ordu erdian kilo gehien ebakitzen duten lehenengo biak Lantzen jokatu dira finalerdietara pasatuko dira.

Aspaldiko kirola da hau. Orain dela hogeita bost urte baino gehiago praktikatzen omen zen, baina, orain ez bezala, azkarren eta hobekien moztzen zutenek irabazten zuten.

Ez dakit, nik ere galdetzen dut hori. Gogorra delako? Aizkora ere gogorra da, eta hobereenak nafarrak dira. Beno, hoberenatarikoak erran behar dugu orain.

■ Aizkora munduan ohitura gehiago dago apustuak egiteko...

Bai, hori puntu inportantea da sega munduan, apustu gutxi egiten dira eta diru gutxi dago jokoan. Beharbada apustu gehiago egingen balira, zaletasuna piztuko litzateke. Tartean diru baldin badago, errazagoa da jendea etortzea; triste da, baina...

→ Txari Eleta

«Laguntzen nauen taldea aise bildu nuen, baina ongi antolatzea ez da hain erraza. Joan den urtean behin bakarrik entrenatu ginen, eta gero galduta ibiltzen ziren. Ea aurten maizago biltzen garen»